

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santos Irazustabarrena Ermina

*Alegia,
Gipuzkoa
(1928-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Alegiako "Ezei" kale-etxean jaioa. Txikitatik gustatu izan zaio politika. Errepublika garaian Espainiako ministro guztien izenak buruz zekizkien. Eskolan abila, seminariorantz ere bideratu nahi izan zuten, karrera bat egitera ere bai, baina gerra zela eta ez zela, herriko maisua aldatu zuten eta ez zuen bide hori hartu. Paper lantegian hasi zen lanean Santos, Tolosako Arzabalzan. Sagardotegia ere plantan jarri zuen, aitonari sagardoa nola egin ikasita, eta andreak egindako mondejuen famak lagunduta. Herriko mugimenduan beti hartu izan du parte, herri elkarte bat baino gehiagoko lehendakari izan da, eta da, oraindik ere, eta Larraitzeko kooperatibako sortzaile ere izan da. Zortzi seme-alabaren aita.

Zintak

ALE-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-28
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Alegiako eskolan

- **Erref:** ALE-001/002
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:01:34. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Aitak paper-lantegian eta baratzean egiten zuen lan. Maisu batekin 80 lagun ibili ziren. Lau urte zituela hasi zen, eta 14 urte arte egon zen eskolan.

Maisua Andr s Vazquez zuten, eta ez zekien euskaraz. Maisuak makila handi batekin jotzen zituela dio. Neskak eta mutilak aparte zeuden eskolan. Aritmetika, geometria, geografia eta horrelakoak ikasi zituzten eskolan. Maisuak ume txikiei erakusten eta laguntzen jartzen zuen eskolan.</p>

2. Gerra hasieran txirrindularitza-itzulia bertan behera

- **Erref:** ALE-001/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Zortzi urte zituela, gerra hasi zen. Goizean jaiki zirenean txirrindularitza-itzulia zegoen Alegian; eta, bando baten bitartez, bertan behera gelditu zela jakinarazi zieten; mugimendua hasi omen zen. Herriko zubiari hiru zulo egin zizkioten kotxerik ez pasatzeko, bere ustez, nafarrak ez sartzeko. Gerra hasi aurretik, horrelakorik ez zuten espero.

3. Gerra hasieran, Alegiatik ihesi

- **Erref:** ALE-001/004
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:06:21. **Bukatu:** 00:07:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Gerra hasi zenean, aita Azpeitira joan zen ihesi, errepublikazalea zelako. Amonarekin Orendainera joan ziren; eta bere amak, berriz, bi fronte pasa zituen. Aitarengana iritsi zenean, hura bezalakoei zer egiten ari ziren jakinarazi zion eta berarekin bueltan ekarri zuen. Alegiara bueltatzeari esker, ez zuen lana galdu. Garaiz itzuli ez zirenek, berriz, paper-fabrikako lana galdu omen zuten.

4. Gerra hasierako egoera eta bandoak

- **Erref:** ALE-001/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak

Laburpena:

Osaba nazionalista bat zuen; eta, Bilbon harrapatu ondoren, kartzelan bi urte baino gehiago pasa zituen. Alegian, gehienak errepublikazaleak zirela dio. Ihes egindakoak bueltatu zirenerako, erreketek sartuta zeuden Alegian.

Errepublikak patal jokatu zuela uste du, baseritako mutilak erreketen esku utzi zituztelako. Aitona karlista zuen. Orendainen amonaren anaiaren etxean egon ziren, baina laster bueltatu ziren Alegiara. Maisua egon zen idazkari hasieran, beste inor ez zegoelako.

5. Gerraren lehenengo asteak

- **Erref:** ALE-001/006
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa

Laburpena:

Udalean, gauzak ez ziren gehiegi aldatu Errepublika bukatu eta gerra hasi zenean. 'Bakaileo' deituriko bat jarri zen udaletxeko buru. Isilik egotea baino, ez zegoen beste erremediorik. Aita erreketez janztera behartu zuten eta isuna ordaindu behar izan zuen gorrietakoa izateagatik. Amak aita udaletxean defendatu zuen.

6. Errepublika garaia

- **Erref:** ALE-001/007
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:14:22. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Círculo Carlista, Centro Republicano eta batzokia zeuden Alegian. Batzokian teatroak eta egiten zituzten gerra aurretik. Gerra hasi zenean, batzokia eta Centro Republicano desagertu egin ziren. Banderaren koloreen gerrikoa erabiltzen zuten eta berari oparitutako gerriko nazionalista bota egin omen zuen, errepublikazalea zelako. Nazionalistek eta karlistek ere bere koloreak eramaten zituzten. Centro Republicanoan ministroen izenak esaten zituen sei urte zituela eta denak "¡viva!" erantzuten omen zuten. Errepublikako lehen presidentea Alcalá Zamora izan zela gogoratzen du eta haren ondoren Azaña. Largo Caballero sozialista, Indalecio Prieto eta beste zenbaiten izenak gogoan ditu.</p>

7. Francoren diktaduran errepublikazaleak isilik

- **Erref:** ALE-001/008
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerra hasi ondoren errepublikazaleek ezin zuten hitzik esan. Gerra bukatu zen Madrilera iritsi zirenean eta gero Franco jarri zen eta diktadura ezarri zuen, hark esaten zuena egin behar zen.

8. Artoa eta babarrunei esker ez zuten goserik pasa

- **Erref:** ALE-001/009
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Herri handietan Alegian baino miseria gehiago zegoela dio. Herri txikietan denek baratzea zutenez, taloa eta babarruna behintzat urte osorako zuten; beraz, ez zuten goserik pasa. Artoa osaba baten errotara eramaten zuten.</p>

9. Alegiako baserrien izenak

- **Erref:** ALE-001/011
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Alegian baserri asko zeuden, kalean bost baserri bazirela gogoratzen du: Langabenea, Arterraka, Langatu, Muxukenea eta Kakutsenea. Gaur egun bi baserri bakarrik daude Alegiako kaleetan. Bere baserriak Ezei zuen izena. Baserrien izen asko gogoan ditu: Ezeierdi, Ezeigoikoa, Larreta, 'Arterrakabeistin', 'Beistitxe', Basokaundi, Basokatxiki, 'Gotzen', 'Languarren'... Baserrikoak atzeratuagoak zirela uste du, eskolara gutxi joaten zirelako.

10. Soldadu Afrikan

- **Erref:** ALE-001/012
- **Iraupena:** 0:05:28. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:30:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Komunio handia egin zuen hamabi urterekin eta hor bukatu zen bere

eskola baino gero soldadu zela ikasten jarraitu zuen. Soldadutzan ofizista eta furriel izan zen, 50-51 urteetan, Saguenen, Afrikan. Ondo ibili zen soldadutzan, kapitainak maitea zuelako. Brigadak ekarritako kartak berak partitzen zituela gogoratzen du. Soldadutzan elkarrekin izandakoak gogoratzen ditu eta euskaldunak estimatuak zituztela pentsatzen du. Soldadutzako kontakizunak azaltzen ditu. Kapitainak bidali zion karta bat oraindik gordetzen du, karta hari esker hiru hilabete gutxiago egin zituelako soldadu bezala.</p>

11. Tolosako Arzabalza papeleran lanean

- **Erref:** ALE-001/014
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:33:33. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Tolosako Arzabalza paper-lantegian irabazitakoa zeukan gordeta. Tolosako Arzabalza paper-lantegiko arduraduna izan zen berrogei urtez. Papelerako kontuak azaltzen ditu. Peoi bezala hasi zen paper-lantegian; enkargatu izatera nola heldu zen kontatzen du.</p>

12. Papelerako lana

- **Erref:** ALE-001/015
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Papelereako kalandra eta bobina zertarako erabiltzen zuten. Pasta prestatuta etortzen zitzaien: "fibra corta" hemen egiten zen eta "fibra larga", berriz, Suediatik eta behin Errusiatik, baina hura ahulagoa zela dio. Pasta egiteko Santanderretik ekarritako eukaliptoak erabiltzen zuten. Egindako papera toki askotara saltzen zuten, Espainiara barne. Paperaren pasta gerra ondoren hasi ziren egiten hemen, lehenago dena inportatu egiten zen. Gerra ondoren pinua eta eukalipto asko jarri zutelako egiten zuten pasta bertan.

13. Zahagi-ardoa eta festak

- **Erref:** ALE-001/017
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

- Aisia » Jai-giroa
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Urtean hiru zahagi-ardo izaten ziren, 80-90 litroko zahagitako ardoa doan banatzen zuten. Bakoitzak bere ogia etxetik ekartzen zuen eta baita kazuelan prestatutako txerri-hankak ere. Elkarriketa garaian, oraindik ere ateratzen omen dute zahagi-ardoa. Zahagi-ardoa Karnabaletan, Pazkotan, Corpus Egunean eta San Juanetan ateratzen zen eta arkupea beteta izaten zen, gehienak gizonezkoak ziren. San Juan herriko patroia da. Berak ez zuen ezagutu, baina bai omen zen ohitura San Juanen eta Karmen egunean batzuk besteak gonbidatzea. San Juan gauean sua egiteko ohitura zuten.

14. Tolosan zinea eta dantza, igande arratsaldeetan

- **Erref:** ALE-001/019
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:57:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Jai goizetan mezara joaten ziren lehen eta baita elkarriketa egin zitzaionean ere. Arratsaldetan Tolosara trenez joaten ziren. Tolosan zinemara joaten ziren eta ondoren hiru pieza dantzatzen zituzten Beotibar frontoiko bailean. "Lo que el viento se llev´", "Hagan juego", eta horrelako pelikulak ikusten zituzten Gorriti, Iparragirre eta Acci´n Cat´licako zinema-aretoan. Zineman ez zuten ezer jaten.

15. Alegiako tabernak

- **Erref:** ALE-001/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Bere garaian Alegian orain baino taberna gehiago ziren, baina inor ez zen tabernatik bakarrik bizi, denak lanera joaten ziren. Tabernen izenak aipatzen ditu. Sagardotegiak ere baziren eta gogoratzen dituenak aipatzen ditu.

16. Sagardoa egiteko modua

- **Erref:** ALE-001/023
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:05:07. **Bukatu:** 01:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Sagardoa egiteko prozesua azaltzen du, aurrena txikitu makinekin, gero prentsa. Sagasti ederra daukala kontatzen du. Txikitu ondoren prentsa bota eta sagarra estutu egin behar dela dio eta ondoren zukua barrika bota eta irak egiten jarri. Aitonak erakutsi zion sagardoa egiten eta bera omen zen Alegiako sagardorik hoberena egiten zuena. Klementinan sagardotegian ikasi zuen aitonak sagardoa egiten. Inguruko baserrietan egiten zuten sagardoa txarra zela iruditzen zaio. Txolarrea baserri ezberdinetakoek txandaka erabiltzen zutela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com